

## II'garren Sailla

### I

#### ASINI POLION'I

*Gaia:* Legegizon argi onek gai arriskutsua darabil eskuetan, ots ordun jazotako erri arteko listar eta gudaketak antzerkitan ondu. Orati'k, ordea, auzi ori utzi ta edestiari lotzeko diotsa, poliki asko. Kaisar eta Ponpei'ren artekoa aipatzen du emen, Polion, Antoni'ren kide ta lagun baitzan, August'ekin etzan joan Aki'ra; origaitik, baiña, ez du aren gizantza txikitu bear kondairakizunean, pakea baitzion munduari ekarri. Polion onek, Kristo aurreko 76'garren urtean jaioa, politikari on, bere garaikO naste ta matxiñada guztietan eskuartu zun; eletari bezela, Atenai'ko irakatsiz zebillen; olerkari zanez, -Bergili'ren jagola ta lagun min-, Katul, Kalvo, Zimna'ren taldea osatzen zun.

*Motum ex Metello consule civicum...*

Metelo' n ordeztogatik erriko igidura,  
gudu-zio ta griñak ta xede biurrak,  
Zori'aren joko ta erri-agintarien  
alkar-ituntze astunak ta gudu iskilluak,  
5 -txautu gabe oraindik odolez gorritan-,  
lan gaitza duzu bizkar gain artzen duzuna:  
gezur-autsak estali su-gaiñez zabilta.

Urrun bego pizkaten antzokietatik  
10 larrizko trajedien Musa odolzale.  
Gero, erri-auziak eratutakoan,  
lan ori bir-asiko Kepropi'tar gisan.  
Polion!. babes bare atxilotientzat  
ta batzarrarentzako argia ta onu;  
15 zu, ereiñotz-koroiak dedu betikorrez  
Dalmatzi'ko garaitzan goraipa ziñuna!

- Dagoneko, zemaikor, zinburruaren otsak  
erauziz dardaraten dizkit belarriak.  
Turut-iskanbil latza! Izkillu-dirdaiak
- 20 zaldi izi ta zaldiko uxatzen guztiak!  
Bai, entzun bide ditut buruzai yaoiak,  
laidotsu utz ez dakien autsez ugertuak,  
eta mende jarririk lurbira osoa,  
Katon'en barne latza tartckO ez dala.
- 25 Juno ta Jainko banak -aperkarren lagun,  
lur aspergabe ura utz bait zuten eziñez-  
garaitzailleen ilObak dituzte eramanik  
Yugurta'ren il-eskeintz erruki gabetzat.  
Nungo zelaik ez ote il-Obiz lekutzen
- 30 latin-odolez gizen burruka gaiztoak?  
T'Esperi'ren erOrtze abarrots nasia,  
Meditar aiek ere luzez aditua?

- Ote da zingirarik, edO ibai-egalik,  
gure guda zurbillen berri ez dutenik?
- 35 Zein itxaso ez zuten margoz gorrizkatu  
Dauni'tarren ilketa erdiragarriak?  
Zein uregi ote da gure odol gabe?

- Baiña, Musa ñabar, jokuak utzita,  
ez zakioz lot, otoi, Kear kanta itsari,
- 40 Billa zazu enekin, DiOnear leizan,  
sOiñu leunago baten neurkera obeak.

*Oarrak.* - 1. MetelO Keler, 60'garrean, ordezkari edo konsul zan; Kaiser, POnpei ta Kraso'ren arteko itunbeana, beronen garaian Osotu zan, eta edeslarien iritziz, emendik sortua zuten amar urte geroago ErrOma'k jasan zun erri-matxinada mergatza. - 3. Agintariok, Kaiser, Ponpei ta Kraso ziran. - 6. Bizi ziran Oraindik gerra artakO geienak, sutan zegOn oraindiño ordun piztuazitako elkar ikusi-eziña ere, bizi ta odOl-jariO azpiratze lOtsagarriaren zauria. - 12. Atenai'tarrak KeprOpi izena ere bai zuten, beren len-errege KeprOpegandik. AngO antzerkigilleak -Sopokel, Euripide ta abar- aomen aundia zuten, trajedi-saillan batez ere. - 16. Grezi'n, Dalmatzilik egoaldera, Iliri'n zeuden Partinotarren kontra garaipen Oskidetsua lortu zun. - 24. Katon, biotz-gogor ura, erromatarren askatasuna begitan zeukana. - 28. Yugurta, Numidi'ko aprikar errege, Mari'k azpiratu ta atxiloturik, garaitz-zurrean, Erroma'ra eraman zuna. - 36. Daunitar edo italiarrak, Dauno baitzan Itali'ko Pulla'n bakaldun.

39. Ken, Ugartediko izarO bat; eta Kear, kanta itunak egin zitun Simonide angoxea zalako. - 40. Dione zeritzan Venus'en amad.

## Liber secundus

### Carmen I

#### AD ASINIUM POLLIONEM

MOtum est Metello consule civicum,  
Bellique causas, et vitia, et modos,  
Ludumque Fortunae, gravesque  
Principum amicitias et arma,  
5 Nondum expiatis uncta cruoribus,  
Periculosae plenum opus aleae,  
Tractas, et incedis per ignes  
Suppositos cineri doloso.  
Paullum severae Musa tragoediae  
10 Desit theatri: mox, ubi publicas  
Res ordinaris, grande munus  
Cecropio repetes cothurno,  
Insigne moestis praesidium reis,  
Et consulenti Pollio curiae,  
15 Cui laurus aeternos honores  
Dalmatico peperit triumpho.  
Iam nunc minaci murmure cornuum  
Perstringis aures: iam litui strepunt;  
Iam fulgor fugaces  
20 Terret equos equitumque vultus.  
Audire magnos iam videor duces  
Non indecoro pulvere sordidos,  
Et cuneta terrarum subacta  
Praeter atrocem animum Catonis.  
25 Iuno et Deorum quisquis amicior  
Afris inulta cesserat impotens  
Tellure, victorum nepotes  
Retulit inferias Iugurthae,

Quis non Latino sanguino pinguior  
 30 Campus sepulcris impia proelia  
     Testatur, auditumque Medis  
         Hesperiae sonitum ruinae?  
 Qui gurgēs, aut quae Iumina lugubris  
 Ignara belli? quod mare Dauniae  
 35 Non decoloravere caedes?  
     Quae caret ora cruore nostro?  
 Sed, ne, relictis, Musa procax, iocis,  
 Caeae retractes munera Naeniae:  
     Mecum Dionaeo sub antro  
 40 Quaere modos levioꝛe plectro.

## II

### KRISPU SALUSTIRI

*Gaia:* Aberastasunak, nola erabilli? Pendiz malkartsua, noski baiño noskiago. Askoren jabe danak geiago opa du. Ta orrela beti gure biotz ondasun-zalea. Diruari, baiña, aldiña (balioa), erabilliak ematen. Esku-zabal danak, txaloak merezi ditu, zekena ta zikoitza, berriz, iguingarri zaigu; bera ere zurbil, kopetillun ta dedurik gabe bizi da. Olerkariak Prokulei goratzen du, bere anai artean zeuzkan ondasunak zatitu bait zitun. Ureari (sudur-erio) antzera azi da diru-zalekeria.

*Nullus argento color est, avaris...*

Krispu Salusti, meatz-zerra etsai!  
 Lur azkenean ostendu zillarrak  
 ez du margorik, zuur erabilliak  
 emana ezik.

5 Anaiak aitak lez artu bait zitun  
     mende luzez da Prokulei biziko,  
     omenak aizez du iraunkor gorako,  
     iñoiz aitzeke.

Nausi ziñake, gogo leitsu eziz,  
 10 Gades urruti Libi'kin ba'zenu  
     uztartuko, ta zu soilki otseindu  
     Kartago biak.

Urmiña geitzen gaitzari emanik,  
Egarri ezin aiza gaitz-erroak  
15 zaiñak utz arte, ta uraren ildeak  
gorputz larua.

Kir'en aulkira Prate itzuli arren,  
onoimen ziñak -erritarren aurka-,  
zorun-taldetik uzten du saieska,  
20 Egi irakatsia.

Orrela, arentzat soilki ziurkatuz  
aginterri ta areiño-buruntzak  
erdeiñu-nardaz begiz joten urretzak  
ditunarentzat.

*Oarrak.* -1. Salusti'kba-zitun antza, Plini Zarrak dioskunez, zillar-  
meatz edo miñak, Alpe-mendietan. - 6. Prokulei, errOmatar zalduna,  
August'en adiskide miña; bere anaieri kendu zizkietan zeuzkaten  
ondasunak, erri arteko gudan Ponpei'ri jarraitu zioelako, eta arek  
beraren anaiekin zatitu zun zeukan etxaguntza. - 10. Kartago  
Apirka'koa, ta Kartago Espaiñi'koa. -17.Orode'n seme ta Parti'tarren  
errege Praate IV'garrena, oso odolzale zalako, bakaulkitik egotzia  
izan zan; gero, alare, Eskitarren laguntzaz, berriz eskuratu zun ango  
aginpidea.

## Carmen II

### AD CRISPUM SALLUSTIUM

Nullus argento color est, avaris  
Abdito terris, inimice lamnae  
Crispe Sallusti, nisi temperato  
Splendeat usu.  
5 Vivet extento Pruculeius aevo  
Notus in fratres animi paterni:  
Illum aget penna metuente salvi  
Fama superstes.  
Latius regnes avidum domando  
10 Spiritum, quam si Lybiam remotís  
Gadibus iungas, et uterque Poenus  
Serviat uni.

Crescit indulgens sibi dirus hydrops,  
Nec sitim pellit, nisi causa morbi  
15 Fugerit venis, et aquosus albo  
CorpOre languor.  
Redditum Cyri sOlio Phraatem  
Dissidens plebi numero beatorum  
Eximit Virtus, pOpulumque falsis  
20 Dedocet uti.  
Vocibus; regnum et diadema tutum  
Deferens uni propriamque laurum,  
Quisquis ingerentes oculo irretorto  
Spectat acervOs.

### III

#### DELI'RI

*Gaia:* Zoritxarra ate-joka datOrkígunean, ez gera naigabe iñoiz erori bear; ezta zoriak par-irri egitean, geiegi pizkortu ere. Goiak damaizkigun ogasunak, igazkor eta utsal baitira, zurtasun-gogoz darabilzkigun. Gaitzak beren azkena dute, baita onak ere, ta, zein txiro zein aberats, amai berdiña; eriotzan ez dago ezberdintasunik. Urduri ta egOn-eziña zenun Deli au; Dolabela, Kasi, Antoni ta August'en adiskide zan.

*Aequam memento rebus in arduis...*  
Orizu, zuk, Oi Deli!, ji bear bait duzu,  
eta aldarte berdiñez jardun zazu beti;  
ez lar zurbil zOri malkartsuz,  
onaldiz poz zoro neurritsuz.

5 Zein oiñaze-miñetan aldi OrO bizi,  
zein jai-egunez txito pozari atxiki,  
aski urrutian etzuna,  
FalernO zarrenez kunkaiña.

An ler sendOak giar ta lertxun zuriak  
10 ostoz itzal guria dagi ten tokian;  
ura be an bait doa igeskor,  
lats makurgunez dardarakor.

15 Bekarzkite ona, bai, ardao ta usainki,  
ta larrosa panpoxen lore lar ertunak,  
diru ta adin laket deudeño,  
ta iru aizpen ari beltzeño.

20 Utz bearko erosi zugazti ta etxe,  
utz bearko baserri, Tiber gorrik urtu;  
eta oiñordekoak gozar  
zuk metaturiko onibar.

Naiz aberats Inako zarretik jaioa,  
naiz lander, enda xeeko, ozkarbide bizi,  
deus ez; Suleize ezpaita kupi,  
ta uzu opa zaitu sarraski.

25 Den-denok garamatzi; guztion zoria,  
bizkor edo nagi, da kutxatik irtena;  
potiñean gero jarriko  
ta gu erbestera betiko.

*Oarrak.* - 2. Zori gaiztoa, aldapa latz antzera margozten digu Orati'k; baiña, bai gorantz bai beerantz, aldapa onetan, ots, ondasun-auzian gogo ta kemen berdiñez jokatu bear dugu. - 10. Balbe edo eriotz-aizpak iruten duten mataza askatu-eziña. - 21. Argos'ko len-errege, mitu-nortzua, Itxaso ta Teti'ren seme, aintziñateak diñoanez.

### Carmen III

#### AD DELLIUM

Aequam memento rebus in arduis  
Servare mentem, non secus in bonis  
Ab insolenti temperatam  
Laetitia, moriture, Delli,  
5 Seu moestus omni tempore vixeris,  
Seu te in remoto gramine per dies  
Festos reclinatum bearis  
Interiore nota Falerni.  
Qua pinus ingens albaque populus  
10 Umbram hospitalem consociare amant  
Ramis, et obliquo laborat  
Lympha fugax trepidare rivo:

Huc oina, et unguenta, et nimium brevis  
 FLOres amOenOs ferre iube rOsae,  
 15 Dum res et aetas et SOrOrum  
 Fila trium patiuntur atra.  
 Cedet coemtis saltibus et domo,  
 Villaque, flavus quam Tiberis lavit,  
 Cedet, et exstructis in altum  
 20 Divitiis potietur haeres.  
 Divesne prisco natus ab Inacho,  
 Nil interest, an pauper et infima  
 De gente, sub divo moreris,  
 Victima rail miserantis Orci.  
 25 Omnes eodem cogimur: omnium  
 Versatur urna serius ocus  
 SOra exitura, et nos in aeternum  
 Exsilium impositura cymbae.

#### IV

#### XANTI POKEU'RI

*Gaia:* Xanti au, gerkar gazte bat dugu, Fili neskatx jopuak maite-  
 sare artean atzia. Mailla ezberdiñeko maitasun onek ez du, noski,  
 lotsarazi bear. Orla egin zuten Akil'ek, Ajax'ek, Agamenon'ek. Alare,  
 Brisei, Tekmese ta Kasandere, errege alabak ziran, gudako gorabe-  
 raz jopu mendeko egiñak. Eta Fili'ren aurretikoak ere ez ote dira  
 gero olako?

*Ne sit ancillae tibi amor pudori...*

Ez bekizu lotsa-zio, o Xanti Pokeu!,  
 mirabeari diozun maite-su.  
 Leun, margo zun Brisei'k griñatu  
 Akil ozarra.

5 Tekmese jopuk be Ajax nausia,  
 TelamOn- seme zun sutu, ederrez;  
 ta garaitz erdi beretu neskatxez  
 Atereutarra.

Gudu-saldoak basati jaustean,  
 10 Tesal-garaitzea, eta Ektor illik,  
 gerkar aulduak aisago azturik,  
 PergamO uria,



Ez dakizu zuk Pili lerdnaren  
aitak, doatsu, suintzat nai zaituten;  
15 errege-etorki ark noski negartzen,  
tetxezain tzarrak.

Zure maitea, siñitsazu, ez da  
kiskil-kume; eta ain emazteki leial  
ta irabaz-etsai ezin sort-azi al  
20 ama galdutik.

Beso ta arpegi ta berna borobil,  
txit goragarri. Etzaitez susmoti,  
nik, bada, adiñez amarreko zortzi  
laster ertsiko.

*Oarrak.* - 3. Brisei, adats eder gaztea, beiñola guda-ondakin banaketan Akil ausartari jausia. - 5. Tekmese, Prigi'ko errege Teutrant'en alaba, arako gerrate baten Aiax'ek arrapatua. - 7. Troia'ko ateetan bertan ebatsi zun Agamenon'ek Kasandere, burrukaldirik gogorrean ari zala. - 23. Ez izan susmo txarrik; Orati'k bai ditu berrogeitamar urte laster osotuko.

## Carmen IV

### AD XANTHIAM PHOCEUM

Ne sit ancillae tibi amor pudori,  
Xanthia Phoceu! Prius insolentem  
Serva Briseis niveo colore  
Movit Achillem:  
5 Movit Aiacem Telamone natum  
Forma captivae dominum Tecmessae;  
Arsit Atrides medio in triumpho  
Virgine rapta,  
Barbarae postquam cecidere turmae  
10 Thessalo victore, et ademptus HectOr  
Tradidit fessis leviora tOlli  
Pergama Graiis.  
Nescias, te generum beati  
Phyllidis flavae decorent parentes:  
15 Regium certe genus et penates  
Moeret iniquos.



20 Ta zuk maiteko duzu Foloe muxiña  
edo Kloris ez beste, lepor dirdir aratz,  
illargi lez gau-siñean,  
edo Gnitar Giges antzera;

T'onek, neskatz artean lekuta ba'dadi,  
begi zurrenei ere ziria sartuko,  
bai ille jareien zurbil jokoz,  
bai betarte izun bi erakoz.

*Oarrak.* - 5. Gerkarren artean ere idurikizun au, edo antzekoak, sarri egiri dira; baita mahats-mordo eldu-ezarena ere. - 17. Foloe oso latza ornen, Kloris ederra ta Gnitar Giges maitagarria; Gnitar edo Gnititar, sortzez Gnido'koa bait zan.

### Carmen V

#### LALAGE

Nondum subacta ferre iugum valet  
Cervice, nondum munia comparis  
Aequare, nec tauri ruentis  
In Venerem tolerare pondus.  
5 Circa virentes est animus tuae  
Campos iuvencae, nunc fluviis gravem  
Solantis aestum, nunc in udo  
Ludere cum vitulis salicto,  
Praegestientis. Tolle cupidinem  
10 Immitis uvae; iam tibi lividos  
Distinguet Auctumnus racemos  
Purpuro varius colore.  
Iam te sequetur; currit enim ferox  
Aetas, et illi, quos tibi demserit,  
15 Adponet annos; jam proterva  
Fronte petet Lalege maritum.  
Dilecta, quantum non Pholoe fugax,  
Non Chloris, albo sic humero nitens,  
Ut pura nocturno renidet  
20 Luna mari, Gnidiusque Gyges;  
Quem si puellarum insereres choro,  
Mire sagaces falleret hospites  
Discrimen obscurum solutis  
Crinibus, ambiguoque vultu.

## VI

### SEPTIMI'RI

*Gaia:* Irudi danez, alkarrekin gudan ibilliak dira Orati ta Septimi; bizi-bizi alkar maite zuten. Septimi, ordea, berriz ere gudu-zelairako gertu dago, naiz Kantauritarrak azpiratzera, naiz Libi'ko ondar gorrietara pozik joango litzateke. Ezetz diotsa Olerkariak, oda arin onen bitartez; Tibur aldean naiz Tarentino'n askoz obeki emango du zartzaroa. Berak ere an iltzea opa du ta gorpua adiskidetasunaren maiko beroz ezotua ikusi.

*Septimi, Gades aditure mecum, et...*

Enekin, Septimi, Gades'a ta Kantauritar  
iñore uztarrik iñoiz ar ez dutenetara,  
naiz mauri-uiñak beti borbor diran lurra  
ziñoiakezan ori:

5 Tibur bekit leun, argeutarrak irazia,  
ene zartzaroaren atsedeen tokia;  
bekit, bai, ene itxaso, lur ta gumatiko  
naigabe-lorren muga

Balbe galazi ezik, ardi illetsuk  
10 maite duten Galesi ibaira noake;  
baita Palant Lakoni'tarrak mende zeuzkan  
lurralde zear ere.

Ezer ez aiña irrika dut lur-zokondo ura:  
eztik eztago an Himeto'ri amor,  
15 ez eta Venapro'ri oliondo orleiak  
ez diote ezer zor.

Luze duzu an uda berria, negua illaun,  
Jupiter'ek emana: ta Bak ugarikorrek  
eder dun Aulon'i ez dio bekaitz-miñik  
Falerno'ko mahatsak.

20 Bakartegi ta muiño atsegarrak auek  
ar nai zaituzte enekin: ta an bustiko duzu,  
zor-malkoz, nolerkari adiskidearen  
autsa, bero, pilpiltu.



## VII

### PONPEI VARO'RI

Gaia: Zorionak damazkio Orati'k bere adiskide Ponpei'ri; au gudari ta arrotz ibillia bai zun. Bego, onezkero, bere ondoan, atsedenetan, jan-edanari emana. Geienbat arriskutik igestu ondoren, ego-ki zaio egonaren goxotasuna. Eskein Tzeuri oturuntza agindua; ez ager mukertsu ardoa edatean, ez gantzukiak izurtzean. Nork eundu guri buru-ustaiak? Jazokun pozkor ontan josta gaitezen neurri gabe.

*O saepe mecum tempus in ultimum...*

O Ponpei ori, ene maitenetan aurrena!  
Nerekin bizitz-azken-urbil sarri izana,  
Bruto buru zalako gudaldi eretan:  
nork biur zaitu berriz, erromatar ori.

5 Aberri-jainkoekin Itali-zerura?  
Zurekin ez al nuen edanez burua  
ta Siri'ko igurtzikiz adatsa dirditsu?  
Zugaz nintzan Pilopon'n eta iges nik azkar,

Zugaz nintzan Piloponen, eta iges nik azkar,  
10 soin-beso-babeskia itsusi galdurik;  
Adore ta indar gabe, aurrenen izanak  
lur-gaiña jo bai zuten okotzez, laidorik.

Baiña ni, ikarakoi au, Merkuri ariñak  
ganduz eraman nindun etsaien erditi;  
15 zu, ordea, itxasok uin irakiñez murgil;  
gudara zinduzan, ai!, berriz ere itzuli.

Biur, ba, Jupiter'i orrits agindua,  
ta jar ene erriñotzpe saiets guda luzez  
aunatua; eta ez asketsi upelik,  
20 zuretako aspaldi axolaz gorderik.

Masik akorreko usul jaiki-lauak bete,  
maskor arruetatik ixur gantzukia.  
Ustaiak atontzeko nork du ardurarik,  
api ezkoz edo-ta mirtuz nork apaindu?

25 Nor du Venu'k aukerako edari-epaille?  
Enaiz ni edanean inñolaz izango  
Edoniarrek bezain ere zuhurrago.  
Samur bai zait irrirts au, laguna itzultzean.

*Oattak.* - 3. Pilipo'ko burrukaldian baiño lendik ere, Bruto'ren gudarozteak saiorik asko egin zituen; au zan gure Orati ere. - 8. Lateraz *Malobathrum* deritzaion gantzuki au India'ko zingiretan suster gabe sortzen diran ostos egiña zan. - 13. Merkuri, joere makurraren aita, olerkarien babes-lagun. - 18. Ereñotz-abetxoren bat zeukan nunbait Orati'k bere etxe ondoan. - 21. Bi kirtendun edontzi aundia, oso egOkI ta artez egiña. - 27. Nesto ta Estrimon bitartean dagoen Edoni edo Tratzi errikOak, edalari amorratuak ziran.

## Carmen VII

### AD POMPEIUM

O saepe mecum tempus in ultimun  
Deducte, Bruto militiae duce,  
    Quis te redonavit Quiritem  
    Dis patriis Italoque caelo,  
5 Pompei, meorum prime sodalium?  
    Cum quo morantem saepe diem mero  
    Fregi, coronatus nitentes  
    Malobathro Syrio capillos.  
    Tecum Philippos et celerem fugam  
10 Sensi, relictæ non bene parmula;  
    Quum fracta Virtus, et minaces  
    Turpe solum tetigere mento.  
    Sed me per hostes Mercurius celer  
    Denso paventum sustulit aere;  
15 Te rursus in bellum resorbens  
    Unda fretis tulit aestuosus.  
    Ergo obligatam redde Iovi dapem,  
    Longaque fessum militia latus  
    Depone sub lauru mea, nec  
20 Parce cadis tibi destinatis.  
    ObliviOso levia Massico  
    Ciboria exple: funde capacibus  
    Unguenta de conchis. Quis udo  
    Deproperare apio coronas

25 Curatve myrto? quem Venus arbitrum  
Dicet bibendi? Non ego sanius  
Bacchabor EdOnis: recepto  
Dulce mihi furere est amico.

## VIII

### BARINE'RI

*Gaia:* Oda txairo, egalaria; greziar Olerkrariren baten antzera osotua. Orati'k, eskertsu, pi permi ñez goratzen du jauregitar emakume gordin baten biziera. Bariñe gerkar izena damaiO berari, baiña diotenez, alako Jule Bariñe, Erroma'ko sendi ezagunekoa genduan.

*Ulla si iuris tibi peierati...*

Iñoiz etzaizu izan, itz origatik,  
ezeren kalterik, ene Bariñe;  
Ortz bat beltz itzuli, naiz atzazkal bat  
zuri motz biur.

SiñistukO nizun. Baiña anker Ori,  
ziñitzez burua loi duzularik,  
ederrago zaitut, ta gazte denak  
dabiltz kezkarik.

Laket zaizu aman auts estaliak,  
10 gezurtzea, naiz gau-itzal ixillak,  
naiz zero Osoa, ta ango jainkO  
eriotz-geak.

Venu'k irri dagi, au ikusiaz;  
baita Ninpa zalu ta Cupidu'k be:  
15 au beti ari da odol-errotan  
gezi-txingartzen.

Zuretzat azia da gazte oro,  
morrOi-sail berri; ta len-maitaleak,  
maiz zemaitu arren, ez dute utzi nai  
20 Andre gaiztoa.



Amak beren txikiz bildur zaizkizu,  
bildur zar ta neskatx ezkon-berrik;  
zure agO-atsak senarrak ostu  
bildur dituzu.

*Oarrak.* - 3. Antziñatean uste zutenez, agin bat naiz atzalkal bat  
loi edo beltz agertzea, gezur naiz añena iruzur baten ezaugarri  
zenun. - 6. Norbere buruagatik zin-egin Oi zuenak, ortarako beartua  
gelditzen zan, eta naitaez bete bear zuen emandako itza. - 14, Gezur  
ta ziri-sartze Oiek etzaituz-te zu ikaratzen, Venu'k eta Ninpa'k eta  
Maitagarriak irri ta par bai dagite; Kupidu, ordea, atergabe ari da  
bolu-ardatz OdOlduan gezi istatsuak zorrozten. -21. Au dala-ta, ikara  
dira noski amak, zar zikoitzak eta andre gazte ezkon-berriak.

### Carmen VIII

#### BARINEN

Ulla si iuris tibi peierati  
POena, Barine, nocuisset unquam;  
Dente se nigro fieres vel unO

TurpiOr ungui:

5 Crederem. Sed tu simul obligasti  
Perfidum votis caput, enitescis  
Pulchrior multO, iuvenumque prodis  
Publica cura.

Expedit, matris cineres Opertos  
Fallere, et tOtO taciturna nOctis

10 Signa cum caelo, gelidaque Divos  
Morte carentes.

Ridet hoc, inquam, Venus ipsa, rident  
Simplices Nymphae, ferus et Cupido,

15 Semper ardentis acuens sagittas  
COte cruenta.

Adde, quOd pubes tibi crescit omnis,  
Servitus crescit nOva; nec priores  
Impiae tectum dominae relinquunt

20 Saepe minati.

Te suis matres metuunt iuvenicis  
Te senes parci, miserasque nuper  
Virgenes nuptae, tua ne retardet  
Aura mantos.

## BALG'RI

*Gata:* Aldiaren aldakortasuna gai arturik, naiko negartu duela diotsa Balgi'ri Misye aurraren eriotza. Ortzia ezbaitagO beti euritan, ezta ur-zabaldia beti naspil. Omer'ek edesten ditun illete guren aundiak ere etziran betikoak izan. Nestor'ek etzunbetikoz eiagOratu bere Antilok gaztea, ezta Piriamu'ren alabak ere beren anai Troilu. Naitaez gerta-bearra dena gura izatea, zuhurtasuna Ornen. Balgi au kOntsul izan zan J. K. aurretiko 12'garren; olerkari bezela illotsak eta negar-bertsoak biribildu zizkigun; sendakintzaz ereidatzi zuen.

*Non semper imbres nubants h́spidos*

Alor sasiz josira ez daror euria;  
Balgi ediskidea, etengabe gOitik;  
aize-jotze ezberdiñak eztu aldioro  
Kaspi'ko itxas-azala zirimoltzen itsik;

5 Armeni' ko ur-aldeak ez diraute illik-il  
izotz setatiaren azpiko maindire;  
GarganO'ko arteak ez du beti ipar-lan,  
ezta zumarrak beti alargun ostotan.

Zu beti zagoz Miste Ostuan oiuz,  
10 bertsO gOibeletan; ez zaitu maite-miñak  
uzten, ez Artazarra lerden jaikitzean,  
ez euzki galdak jota iges uxatzean.

Alta iru aldiz zarrak etzun, ala ere,  
AntilOk maitea urte aunditan negartu,  
15 Trono aurra ere ez zuten beti malkotu  
aren guraso eta prigitar arrebak.

Utz, bada, zinkurin ta espa izu melingak,  
ta abes ditzagun August Kaiser'en egintza  
berriak; ta Nipate leitu ta Medo ubel

20 enderri garaituei bidez itsatsia,  
-iskanbil gutxigotan zapart dagitela-  
ta gelOndar ozteak muga izentatu an  
dabiltzela, lur-zelai medar ertseraziz.

*Oarrak.* - 4. Kaspi au zingira aundi bat duzu, Asia aldean, beste itxasoekin artu-emanik, agiriz beintzat, ez duena. - 5. Armeni au, berriz, Asia Txiki'tik Kaspi itxasoraiño edatzen da; mendiz inguratu dago, ta eguraldi guztiz otza geienik. - 7. Gargano, Apuli'ko mendia. - 9. Miste, jopu-izena arri-idazkunetan. -13. Nestor, Troia'ko arresi azpian il zan Antilok'en aita: larogeta amar urte bizi izan zan. - 15. Piriamo ta Ekuba'ren semea, Akileu'k erail zuna. - 19. Nipate ta Medo, Armeni'ko ibaiak. - 22. Gelondarrak, ots, Tansis sorkaldeko sarmatar erriak.

## Carmen IX

### AD VALGIUM

Non semper imbres nubibus hispidos  
Manant in agros: aut mare Caspium  
Vexant inaequales procellae  
Usque; nec Armeniis in oris,  
5 Amice Valgi, stat glacies iners  
Menses per omnes; aut Aquilonibus  
Querceta Gargani laborant,  
Et foliis viduantur orni.  
Tu semper urgues flebilibus modis  
10 Mysten ademtum; nec tibi Vespero  
Surgente decidunt amores,  
Nec rapidum fugiente Solem.  
At non ter aevo functus amabilem  
Ploravit omnes Antiochum senex  
15 Annos; nec impubem parentes  
Troilon, aut Phrygiae sorores  
Flevere semper. Desine mollium  
Tandem querelarum; et potius nova  
Cantemus Augusti tropaea  
20 Caesaris, et rigidum Niphatem,  
Medumque flumen, gentibus additum  
Victis, minores volvere vortices;  
Intraque praescriptum Gelonos  
Exiguus equitare campis.

## LIKINI MURENA'RI

*Gaia:* Zori on naiz txar, ein berdiña zaindu. Bizialdi ontan Onela jOkatu bear dugu, alegia. Itxastarrak zer dagiten dakar gogora Olerkariak, irudi bizi-liraiñez: galzoriari bizkar eman, ta zigur irau-teko, ez dira aiek itxas zabalean lar sartzen, ezta ertzeregi urbildu ere. Beraz, gizonak ez du ibilli bear ez goregi ez sakonegi; erdiko bide dirdautstik jo baiñO.

*Rectius vives, Licini, neque*

Zurrago zenbilkez, ene Likini!  
beti itxas aundiri aier gabea,  
edo, ekaitz izu, geiegi ikutua  
urertz gaiztoa.

5 Erdi-bide izpitsuz doan edonork  
ez du izango sapai zar atsiturik;  
ezta ere, zugur, iñarts lezaken  
jauregi autik.

Ler zutiak geigO aizez dardartzen  
10 dorre eskergak zarta aundigOz jausten,  
tximistak maizago mendi garaiak  
ditu zauritzen.

Gaitzean ditxaro, ta zori obez  
bildur duzu biotz ongi gertua.  
15 Jupiter'ek negu motza dakar gaur  
ta biar uxa.

Orain gaizki arren, ez beti orla;  
Apol'ek esnatzen kitaraz iñoiz  
Musa ixilla, tez du beti gezitzen  
20 ustai urtika.

Larrialdi oroz idor ta kementsu  
ager zaitez beti; ta zeuk, zugurki,  
aize leunak jOrik, dituzu ulduko  
ojal puztuak.

*Oarrak.* - 1. Likini Murena, Prokulei'ren anai ta Mekena'ren ezkon anai dugu, Kikero'k ere sarri aipatua. Bigarren sail ontako bigarren odanberautazjardun genduan. August Kaisar'en matxañadan esku arturik, an ji zan. - 15. Nequak izadi osoa ederrik gabe jartzen du. - 18. Apol, Jupiter ta Latone'n semea, Olerti ta Ereserti'ren jainko zenun. - 22. Gizon begiratu ta umOak, bizitzako gora-berak, ibar-muiñoak, neurrira ekartzen jakin bear du.

Carmen X

AD LICINIUM

Rectius vives, Licini, neque altum  
Semper urguendo, neque, dum procellas  
Cautus horrescis, nimium premendO  
Li tus iniquum,  
5 Auream quisquis mediocritatem  
Diligit, tutus caret obsoleti  
Sordibus tecti, caret invidenda  
Sobrius aula.  
Saeuius ventis agitatur ingens  
10 Pinus: et celsae graviOre casu  
Decidunt turres: feriuntque summos  
Fulgura montes.  
Sperat infestis, metuit secundis  
Alteram sortem bene praeparatum  
15 Pectus. Informes hiemes reducit  
Iupiter, idem.  
Submovet. Non, si male nunc, et olim  
Sic erit: quondam cithara tacentem  
Suscitat Musam, neque semper arcum  
20 Tendit Apollo.  
Rebus angustis animOsus atque  
Fortis adpare: sapienter idem  
CONtrahes ventO nimium secundo  
Turgida vela.

IRPIN KINTZI'RI

*Gaia:* Kezka ta ardurak auzO utzirik, bizialdiak berekin dakarzkigun pOz atsegin alaikorretan murgil gaitezen. Etzaite berri-zale izan; etzaite geiegi saiatu bizitzako gauzetaz. Adin lilitsua irazezan doa, ta atzenik datorkigu, Itzal gogaikarri antzera, zartzaro aula. Lorak ere, erne-ala erortzen. Illargiak bere gOraberak ditu. Zergatik, bada, gogo-kezkatan? Buruak arrosa-ustaiz usaintsu, edan dezagun naitara. - Epikurtarrak zuten solaskera au.

*Quid bellicosus Cantaber, et Scythes...*

Kantauritar zuharrak, eta Adri'k banatzen  
gaitun eskitar beltzak zeren opa diran  
atzeman-min asege ori,  
laga ezazu, Irpin Kintzi!

5 Etzaite kezka gutxi eskatzen dun biziz  
lastersko dOa atzeruntz GaztarO leun ederra,  
burusoil igarrak uixatuz  
maite-su loi ta lo erreza.

Uda-lOrak nola-nai ez dute eder berbera,  
10 ez Illargi'k dizditzen aurpegi berdiñez.  
Zergatik nekatu oi duzu  
barne aula asmo betikorrez?

Albo zut naiz ler Onen azpian etzanik,  
nOla ez edan kezka gabe, al dalarik,  
15 ille sOillak arrosa-ustaiz diz,  
Asiri'kO akaraz jori?

Axol marraskariak Ebi'k aitzen ditu,  
zein morroik otzituko guri, lei bizian,  
sua lako Falerno ontziak  
20 joan doan ur Ozkirritan?

NOrk aterako digu, bere etxetik, Lide  
maite mukerra? Tira, datorrela bizkor  
bere boli-jogailluakin,  
Lakoni-eraz adatsa dula.

*Oarrak.* - 1. Oda au, J. K. aurretiko 28'garrenaren amairuntz edo bestela 25'garrenaren asieran egiña da: Kantauri'n, bada, orduantxe izan zan olako mitxiñada gogorra ErrOmatarren aurka; baita Praate'k ere, garai artan Eskiti'n lenera itzuli nai izan zuen bere bakal-aulkia. - 2. Adriatek itxasoak bereizten zitun, batez ere, Itali ta — 7 - Berrogei bat urte zitun Orduan Orati'k; baiña, dakigunez, oso gazte-rik kaska-soildu zan. - 16. Akara edo nardua India'ko landaratxoa zan estutua olio txit usaitsua ematen zuna. - 18. Ebi, lenengo sailleko amartzigarren odan esan gendunez, Bak'en izengoitia.

## Carmen XI

### QUINCTIUM

Quid bellicosus Cantaber, et Scythes,  
 Hirpine Quincti, cogitet, Hadria  
     Divisus obiecto, remittas  
         Quaerere: nec trepides in usum  
 5 Poscentis aevi pauca. Fugit retro  
     Levis Iuventas, et Decor; arida  
         Pellente lascivos Amores  
             Canitie facilemque Somnum.  
 Non semper idem floribus est honor  
 10 Vernis; neque unO Luna rubens nitet  
     Vultu; quid aeternis minorem  
         Consiliis animum fatigas?  
     Cur non sub alta vel platanO, vel hac  
     Pinu iacentes sic temere, et rosa  
 15      Canos odorati capillos,  
         Dum licet, Assyriaque nardo  
     Potamus uncti? Dissipat Evius  
     Curas. edaces. Quis puer ocius  
         Restinguet ardentis Falerni  
 20      Pocula praetereunte lympha?  
     Quis devium scortum eliciet domo  
     Lyden? eburna, dic *age*, curn lyra  
         Maturet, incomtam Lacaenae  
         More comam religata nodo.

## MEKENA'RI

*Gaia:* Lira-neurriari ez dagokio gertaera astun eta odolkoirik; Orati'k, beraz, eztu nai kanta kartagotarren gudu ta liskarrik; ez lapitarren Ordikeririk, ez Erkul'ek lur-semba edo erraldOicn aurka irabazitako ereiñotz-abarrik. Gurago du, Mekena'k, bere adiskide kutunak, eskatzen dion ezker, Mekena beraren eta onen emazte Likimne Terentze'ren txera ta maitasunak abestu.

*Nalis longa ferae bella Nurnantiae...*

Numanti, izuko liskar luzeik etzazu nai,  
ez Anibal zagairik, ez Sikul itxasoik,  
kartagotar Odolez gorria, kitaraz  
nik soinu leun artzerik;

5 ez lapitar ankerrak, ez Hileu, lar txerbel,  
ez lur-gaztek, Erkul'en eskuz beeratuak,  
Saturn zarraren etxe argia galzoriz  
inarrrosi zutenak.

Zuk. Mekena, Obeki emango dituzu,  
10 kondaira lan soillez, Kaiser'en burrukak  
terrege zemaitien lepo arropuzak  
tatarrez eramanak.

Nik, musa leun eztiatz, Likimne andrea  
ta aren begi inartsuak ditut goretsiko,  
15 aren bular kirmena dut kantuz jasoko,  
elkar-maitez asea.

Etzan ura lotsa izan dantzatalde barru,  
ez jokoan arituz, ez Diane'n jaiez  
bere beso lerdanak neskatil aratzei  
20 jostalari emonez.

Ta zuk orain Akemen joriak zeukanaz,  
naiz Prigitar naroan migdondar on truke,  
Likimne zeurearen illedi ederra  
aldatu nai zenuke?



25 Truk ote, arabitar etxe ederrengatik,  
zure musu gartsutik iduna baztertu  
naiz, laztura-zur, naien zenukena ukarren  
naiz berak ausaz ostu?

*Oarrak.* - 1. Nurnantiarrak -Duero ibaia jaioten dan tokirantza  
bizi ziran, nunbait-, beren askatasuna jagon naiean, zortzi une  
luzez bulartsu burukatu ziran erromatarren aurka. - 2. Sikili'ko  
metan jokatu ziran Miles'ko (260) ta Egates'ko (241) erasoaldi gogo-  
rrak. - 5. Hileu, Arkadi'ko Kentaur, lapitarren kontra gudukatu  
zuen. - 21. Akemendar sendia guztiz aberatsa ornen zan; errO  
ontatik irtenak ditugu Kir, Persi'ko errege, ta aren ondorengoak. - 23.  
Migdon, Armon'en semea, emakume zaldizkoen aurka egin zuena.

## Carmen XII

### AD MAECENATEM

Nolis longa ferae bella Numantíae,  
Nec durum Hannibalem, nec Siculum mare  
Poeno purpureurn sanguine, mollibus  
Aptari citharae modis:  
5 Nec saevos Lapithas, et nimium mero  
Ilylaeum; dornitosve Hercuea rnanu  
Telluris iuvenes, unde periculum  
Fulgens contremuit demus  
Saturni veteris. Tuque pedestribus  
10 Dices histOria prOelia Caesaris,  
Maecenas, melius, ductaque per vias  
Regum colla minantiurn.  
Me dulcis dominae Musa Licymniae  
Cantus, me voluit dicere lucidum  
15 Fulgentes oculos, et bene mutuis  
Fidum pectus amoribus;  
Quam nec ferre pedem deducuit choris,  
Nec certare iOco, nec dare brachia  
Ludentem nitidis virginibus, sacro  
20 Dianae celebris die.  
Num tu, quae terma dives Achaemenes,  
Aut pinguis Phrygiae MygdOnias opes,  
Permutare velis crine Licymniae?  
Plenas aut Arabum dOmos,

35 Dum flagrantia detOrquet ad Oscula  
Cervicem, aut facili saevitia negat,  
